ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2021eko urriaren 13a, asteazkena • 117 zk.

## II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

## BASTIDAKO UDALA

**Jendaurrean jartzea zabor bilketaren tasaren 2021eko bigarren seihilekoko errolda**

Behin-behineko onespena eman ondoren zabor bilketaren tasaren 2021eko bigarren seihilekoko erroldari, jendaurrean jartzen da 15 egun baliodunеko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsitzat joko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsitzat joko da.

Iragarki honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Borondatez ordaintzeko hilabeteko epea izango da; hain zuen ere, 2021eko urriaren 11tik azaroaren 11ra, biak barne. Helbideratutako ordainagiriak 2021eko urriaren 30ean kobratuko dira.

Tasa horiek ordaindu behar izan eta ordainketa horiek inongo banketxetan helbideratuta ez dituztenek Kutxabanken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak. Horretarako, beharrezkoa izango da etxean jasoko duten ordainagiri abisua aurkeztea. Abisurik jaso ezean, udal bulegoetan eskatu beharko da. Euskal Administrazioaren Ordainketa Pasabidearen bidez ere egin ahal izango dira ordainketak.

Tasa borondatez ordaintzeko aldia igarotakoan, premiamendu betearazte bideari ekingo zaio, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Zergei buruzko Foru Araudian ezarritako xedapenekin bat etorriz, eta legez ezarritako errekarguak kobratuko dira, eta, hala badagokio, baita berandutze interesak eta sortzen diren kostuak ere.

Bastida, 2021eko irailaren 30a

*Alkatea*
*LAURA PÉREZ BORINAGA*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2021.10.13 05:48:26 Z